

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 12,6 milioi euro bideratuko ditu errepideetako seinaleztapen bertikala, bideko markak eta segurtasun-langak hobetzera

Jarduera-aldiak 2013tik 2016ra bitarteko urteak barnebiltzen ditu

Jueves, 27 de diciembre de 2012

Nafarroako Gobernuak 12.640.000 euro bideratuko ditu 2013-2016 aldian Nafarroako errepideetako seinaleztapen bertikala hobetzera eta bideetako markak pintatzera eta, baita, segurtasun-langak jartzera, haien mantentze-lanetara eta haiek altxatzera ere. Horrela jasotzen da Luis Zarraluqui Sustapen Departamentuko kontseilariak onartutako hainbat foru-agindutan.

Seinaleztapen bertikalari dagokionez, lan horietan mantentze-lana, birjarpena eta seinaleztapen bertikala eta balizajea hobetzea sartzen dira, arreta berezia eskainiz istripuak biltzen dituzten edo potentzialki arriskutsutzat jotzen diren bide-guneei.

Seinaleztapen bertikalari dagokionez, lan horietan mantentze-lana, birjarpena eta seinaleztapen bertikala eta balizajea hobetzea sartzen dira, arreta berezia eskainiz istripuak biltzen dituzten edo potentzialki arriskutsutzat jotzen diren bide-guneei.

Bideko marken pintaketari eta birpintatzeari dagokionez, aurrekontu orokorra 6,09 milioi eurokoa da. Horrelako jardueran bideko markak ez-ezik, bidegurutzeetako oinezkoen babesguneen ertzak pintatzea eta birpintatzea eta istripuak biltzen dituzten edo potentzialki arriskutsutzat jotzen diren bide-guneetan soinu-bandak jartzea ere sartzen dira. Lan horiek esleitzeko, lurraldea hiru zonatan banatu da: Iparraldea (Agoitz eta Mugairi), Hegoaldea (Tafalla eta Tuteria) eta Mendebaldea (Irurtzun, Lizarra eta Iruñea).

Kasu honetan, Señalizaciones Eder, S.A enpresari esleitu zaio, egoitza Bizkaiko Mungia herrian duenari, hark egin baitu ekonomikoki onuragarriena izan den eskaintza.

Bukatzeko, **Segurtasun-langak jartzeko, birjartzeko, haien mantentze-lanetarako eta altxatzeko lanak** ere esleitu dira aldi bererako. Kasu honetan, Ferroser Infraestructuras, S.A. enpresari, zeinak, egoitza Madrilen duen, esleitu zaizkio, gehienez, 2.450.000 euroko gastura arte.

Lan horietan, egoki iritzitako zonetan langa berriak jartzea edo lehendik jarritako bide-guneetan zabaltzea sartuko dira. Istripuen ondorioz edo

materiala zahartu delako hondatuta dauden langak birjarriko dira eta nibelatu eta/edo altxatu egingo dira beste zenbait bide-guneetan. Jarduera hori gauzatzerakoan arreta berezia eskainiko zaie arriskutsutzat jotzen diren eta istripuak biltzen dituzten bide-guneei.